

Nola esan behar dut...?





a) Mikelek Ainhoa bihar **etorriko dela esan dit.**

b) Ainhoa bihar **etorriko dela esan dit Mikelek.**

c) Mikelek **esan dit Ainhoa bihar etorriko dela.**



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



# Hara zer dioen horretaz Euskaltzaindiak:



- (60) a. Tren hau Orion gelditzen dela entzun dut.  
b. Entzun dut tren hau Orion gelditzen dela.

Beharbada zenbaiten ustez (60a) dotoreago da (60b) baino. Baina, usteak uste, azken hau izaten da askotan hobesten den ordena, inplikazio berezirik gabe. Perpaus osagarria konplexua izaten delako gertatzen da, beharbada, eskuinean kokatzeko joera hori. Zenbat eta konplexuago izan, hainbat eta handiagoa da, gainera, joera hori (...)

- (61) a. Tren hau Orion gelditzen dela esan didate gizon horiek.  
b. Gizon horiek esan didate tren hau Orion gelditzen dela.  
c. Gizon horiek tren hau Orion gelditzen dela esan didate.

Hiru adibideak zuzenak dira, noski, baina ordenarik arruntena (61b)koa da beharbada, hau da, perpaus nagusiaren eskuinean duena.

(EGLU-V 1)

Perpaus osagarria: “*tren hau Orion gelditzen dela*”.

Perpaus nagusia: “*Gizon horiek esan didate*”



Universidad Euskal Herriko  
Le País Vasco Unibertsitatea

# Hara zer dioen horretaz Euskaltzaindiak:

Baina zalantzazkoak dira honen gisakoak:

- (?) [Bihar goizean etorriko dela Ainhoa] esan dit Mikelek.

Adibide horretan, perpaus osagarriaren osagai bat (Ainhoa) mendeko egituraren eskuinera atera, eta perpaus osagarriaren eta aditz nagusiaren ("esan") artean ageri da.

Perpaus osagarriaren eskuinera osagai bat ateratze hori errazago gertatzen da perpaus osagarri osoa perpaus nagusiaren eskuinean dagoelarik.

- Mikelek esan dit [bihar goizean etorriko dela Ainhoa].

Bestela:

- [Ainhoa bihar goizean etorriko dela] esan dit Mikelek.





# Ikus ditzagun zenbait adibide:

- Uste dut denek **interpretatzen dutela** nire poza haurraren ilusioa saritzeko adeitasuntzat.
- Batek pentsa lezake elkar **plagiatzen dutela** oratze-funtzioan.
- Jordi Sabater Pi naturalista eta etologo handiak, 1974an, jakinarazi zigun txinpantzeek **badutela** kultura.
- Hala ere, aski da osteratxo bat egitea burdindegi batean barrena, ikusteko puntak eta ahozorrotzak **jarraitzen dutela** izaten (torlojuen helizearekin batera) formarik transzendentalenak era guztietako (azpi)funtzioetarako.





# Eta perpaus osagarria ezezkoa izanik:

- Baina aski dugu inguruan begiratzea, egiaztatzeko mundua **ez dela** halakoa.
- Horrek esan nahi du errealitatearen Konstituzioa **ez dela** hutsa den lege multzo bat.
- Demagun xake-begiratzailleak, hasieran bederen, **ez duela** arrastorik ere nola funtzionatzen duen jokoak.
- ...berriro diot Feynmanek **ez duela** errurik puntu honetatik aurrera.





Zehargalderari dagokionez, bestalde, perpaus nagusiaren ezkerrean zein eskuinean ager daiteke, eta haren osagaiek ez dute zertan egon nahitaez aditzaren ezkerrean:

- Oraindik ez gara ados jarri ea **zer esan nahi duen** errealitatea konprenitzeak, baina aurrera gabe esan dezagun egitura oso tasun baliagarria dela kasu asko ulertzeko. .
- Oro har, jokalariak askatasuna du aukeratzeko **zer pieza mugitu nahi duen** eta **nora eraman nahi duen**.
- ...bide batez, ulertzen du (...) **zergatik dituzten** halako antena paraboliko erraldoiak irrati-astronomiako teleskopioek, **zergatik erabiltzen diren** zenbait pantaila paraboliko erresistentzia fokuan daukaten estufetan edota harizpia era berean fokuan daukaten argi-proiektoreetan, eta abar.



Erabilera zuzena azaltzeko erabili diren adibideak ZIO bildumako *Formen matxinada* liburutik hartu dira.



## 6. ZIOliburuaren aurkezpena

Azaroak 27 (**data zuzendua**)

Donostiako Joxe Mari Korta zentroan

12:30 Ludger Mees Euskara Errektoreordeak ZIOri buruz

12:45 Juan Garziak *Formen matxinada*z eta haren itzulpenaz

13:30 Jorge Wagensbergegek hitzaldia "Una profunda cuestión de superficie"



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea





# ZIO bildumako seigarren alea kalean: *Formen matxinada*



Jorge Wagensberg (Bartzelona, 1948) fisikaria da ikasketaz, baina zientziaren zabalkundean egindako lanetik da ezaguna publiko zabalarentzat; besteak beste, *Cosmocaixa* museoaren eta *Metatemas* bildumaren sortzaile eta zuzendari izateagatik. Berak idatzitako liburuen artean, leku berezi bat du orain euskaraz plazaratzen den *Formen matxinada* honek. "Errealitatea konprenitzea axola zaion edonorentzat idatzia da liburua" diosku egileak, eta argitaratzaileek, berriz: "Liburu hau irakurriz gero, ezer ez da berdina izango; ez mundu bizigabea, ez bizidunena, ez zu zeu. Wagensbergekin erakutsiko dizu forma sinple bakan jakin batzuen konbinazioz egin dela mundua. Hori gutxi ez eta, izadiaren adreiluak diren forma horiek, ez izatearen aurka *matxinatuz*, nola errealitateratu diren ere azalduko dizu: eboluzioaren teoria, alegia, materia biziaren esparrutik besteetara ere hedatuz".

ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat) bilduma UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren ardurapeko lana da, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesari esker mamitua.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

